

DENON HEZKUNTZA !!

HEZKUNTZAN MURRIZKETARIK EZ!!!!!!

Facebook sare sozialaren bidez, hainbat eta hainbat irakasle bildu gara zerbitzu publikoak jasaten ari diren murrizketen aurrean gure desadostasuna adierazteko. "Denon Hezkuntza" taldea sortzea erabaki dugu ekimen ezberdinak aurrera eramanez, "Hezkuntzan Geu Eragile" taldearen lankidetzarekin batera. Nahiz eta ikastetxeetako irakasleek hasiera eman dioten haserre honi, gure asmoa da hezkuntzako eragile guztiokin urratsak ematea, bai guraso, ikasle zein bestelako langileak.

Azken urteotan Euskal Eskola Publikoak eta berau osatzen duten langile zein ikasleek jasandako murrizketa "larriak" direla eta, "hezkuntza-kalitatea arriskuan dagoela", salatu nahi dugu. Idazki honen bidez murrizketa horien ondorioak ezagutzera eman nahi ditugu:

* Geletan masifikazioa ematen ari da ratioen igoerarekin, eta horrek ikasleen behar ezberdinak asetzera gero eta zailagoa bihurtzen du. Gelan 30 ikasle izatera iritsi gaitzke!!!!

* Irakaslegoa gutxitu da, langileen zaintzak areagotzea dakarrena eta lan prestakuntzarako orduak murriztea dakarrena, era berean. Aurten Eskola Publikoan 7.000 ikasle gehiago daude, baina 150 irakasle gutxiago.

* Bi ikasturtetik hona, ordezkapenak bigarren egunetik aurrera burutzen dira Haur Hezkuntzan eta laugarren egunetik aurrera Lehen Hezkuntzan. Irakasleen nahien kontra, ikasleak behar bezala zainduta ez egotea dakarrena. Tarte hau 15 egunera luzatu nahi dute gobernu-buruek.

Horregatik, hainbat proposamen jaso eta zabaldu ditugu eskolen artean:

-Inauterietan beltzez janztea., soinean murrizketen aurkako leloak edo ikurrak eramanez.

-Astean behin murrizketen aurkako kamisetarekin eskolara joatea.

-Astean behin eskolaren atarian enkartelada egitea

Aski da, gu entzuteko ordua heldu da! Mugi gaitezen!

Ondoren murrizketen aurkako ekintzaren bat egiten ari diren edo egingo duten eskolen zerrenda bidaltzen dizuegu:

Altza herri ikastetxea-SJC, Donostia, Las Viñas ikastetxea, Santurtzi, Dr Fleming ikastetxea, Billabona, Txinkorta eskola, Bidegoian, Orokieta eskola, Zarautz, Xabier Munibe , Azkoitia, Langile Ikastola, Hernani, Amara Berri eskola, Donostia, Koldo Mitxelena eskola, Erreterria, Jakintza Ikastetxea, Donostia, Txingudi BHI, Irun, Tokialai BHI, Irun, Langaitz BHI, Erreterria, Lezo BHI, Lezo, Lakuabizkarra Gasteiz, Intxaurren Ikastola, Donostia, Eguzkitza eskola, Irun, Sasoeta-Zumaburu eskola, Lasarte, Plentziako eskola, Plentzia.